Bestelako Xedapenak

OSASUN SAILA

10

EBAZPENA, 2008ko abenduaren 12koa, Farmaziako zuzendariarena, Ana Isabel Redondo Redondo andreari Vitoria-Gasteizko (Araba) udalerrian farmazia-bulego bat sortzeko baimena ematen diona.

Ana Isabel Redondo Redondo andreak aurkeztutako eskabidea ikusi da, Vitoria-Gasteizko udalerrian (Araba) farmazia bulego bat sortzekoa. Hauek dira oinarriak:

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Osasun sailburuaren 2007ko maiatzaren 28ko Aginduaren bidez, Vitoria-Gasteizko farmazia-eskualdean farmazia-bulego bat sortzeko prozeduraren hasiera iragarri zen.

Bigarrena.– 2007ko irailaren 14ko Aginduaren bidez, farmazia-bulego horren titulartasuna lortzeko Merituak Baloratzeko Batzordeko kideak izendatu ziren. Batzorde horrek, zegozkion legezko izapideak egin ostean, 2008ko apirilaren 9ko Ebazpena hartu zuen, onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda eta puntuazioaren araberako sailkapena onartzen zituena. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 2008ko maiatzaren 9an (87. zenbakia), eta bertan Francisco Etchaberry Santamaría agertzen da puntuaziorik handienarekin.

Hirugarrena.– Ebazpen horren aurka ez zen inolako errekurtsorik aurkeztu.

Laugarrena.– 2008ko ekainaren 6ko Ebazpenaren bidez, Farmazia Zuzendariak ezetsi egin zuen Francisco Etchaberry Santamaría jaunak aurkeztutako eskabidea. Ebazpen hori Euskal Autonomia Erkidegoko Ordenazio Farmazeutikorako ekainaren 17ko 11/1994 Legearen 34.3 artikuluan ezarritakoa betez hartu zen. Bertan adierazten denez, prozedura berean beste eskabiderik egonez gero, farmazia-bulegoen titulartasuna lortzeko prozedurak ezin izango dira ebatzi 65 urte baino gehiago duten botikarien alde. Ezezpen horren ostean Ana Isabel Redondo Redondo andrea da puntuaziorik handiena duen hurrengoa.

Bosgarrena.– 2008ko ekainaren 10eko idazkiaren bidez Farmazia zuzendariaren idazkia jakinarazi zitzaion Redondo andreari. Idazki horretan, puntuaziorik handiena duen lehiakidea zenez, farmazia-bulegoak sortu, lekuz aldatu, itxi eta jardunean jartzeko prozedurak arautzen dituen ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren 5. artikuluan ezarritako agiriak aurkezteko eskatu zitzai-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

10

RESOLUCIÓN de 12 de diciembre de 2008, del Director de Farmacia, por la que se concede a Dña. Ana Isabel Redondo Redondo autorización de creación de oficina de farmacia en el municipio de Vitoria-Gasteiz (Álava).

Vista la solicitud presentada por Dña. Ana Isabel Redondo Redondo, de autorización de creación de oficina de farmacia en el municipio de Vitoria-Gasteiz (Álava), y sobre la base de los siguientes:

HECHOS

Primero.– Mediante Orden de 28 de mayo de 2007, el Consejero de Sanidad anuncia el inicio del procedimiento para la creación de una nueva oficina de farmacia en la Zona Farmacéutica Vitoria-Gasteiz.

Segundo.– La Orden de 14 de septiembre de 2007 designa los miembros de la Comisión de Valoración de Méritos para el acceso a la titularidad de la citada oficina de farmacia. Dicha Comisión, previos los oportunos trámites legales, adopta el Acuerdo de 9 de abril de 2008, por el que se aprueba la lista definitiva de concursantes admitidos y su clasificación por orden de puntuación. El Acuerdo es publicado en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 87 de 9 de mayo de 2008 y en él figura D. Francisco Etchaberry Santamaría como el concursante de mayor puntuación.

Tercero.– Contra el citado Acuerdo no se interpone recurso alguno.

Cuarto.– Mediante Resolución de 6 de junio de 2008, el Director de Farmacia deniega la solicitud presentada por D. Francisco Etchaberry Santamaría. Esta resolución se adopta en aplicación de lo establecido en el artículo 34.3·de la Ley 11/1994, de 17 de junio, de Ordenación Farmacéutica del País Vasco, que impide resolver los procedimientos para acceder a la titularidad de las oficinas de farmacia en favor de los farmacéuticos mayores de 65 años cuando existan otras solicitudes en el mismo procedimiento. A consecuencia de dicha denegación, Dña. Ana Isabel Redondo Redondo pasa a ser la concursante de mayor puntuación.

Quinto.– Lo anterior se pone en conocimiento de la Sra. Redondo mediante escrito del Director de Farmacia, de fecha 10 de junio de 2008. En dicho escrito, y dada su nueva condición de concursante de mayor puntuación, se le insta a presentar la documentación que establece el artículo 5 del Decreto 338/1995, de 27 de junio, por el que se regulan los procedimientos de

on, deitutako farmazia-bulegoa sortu aurretik zegokion baimena bere izenean jartzeko.

Seigarrena.– Ana Isabel Redondo Redondo andreak, 2008ko urriaren 31n, Vitoria-Gasteizko udalerrian farmazia bulego bat sortzeko baimenaren eskabidea eta 338/1995 Dekretuaren babespean galdatutako agiriak aurkeztu zituen.

Aurkeztutako agiri horietan ikusten denez, farmazia-bulego berri hori honako helbide honetan dagoen lokalean ezarri nahi da: Iruñea kalea, 33. zenbakia, Vitoria-Gasteizko farmazia-eskualdea.

Zazpigarrena.– Farmazia zuzendariak, 2008ko azaroaren 6an, jakinarazi egin zien aurreko puntua hartu beharreko ebazpenaren eraginpean egon zitezkeen eta legezko interesak izan zitzaketen titularrei, bidezko irizten bazioten, izapidetzen ari zen prozeduran pertsonatu eta alegazioak aurkez zitzaten.

Horretarako emandako epean titular horiek ez dira pertsonatu eta ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Zortzigarrena.– Farmazia Antolamenduko zerbitzuburuak 2008ko abenduaren 11n aldeko txostena eman zien Ana Isabel Redondo Redondo andreak lortu nahi duen baimena lortzeko aurkeztutako agiriei.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Farmaziako zuzendariak dauka prozedura honi buruz ebazpena emateko eskumena, hala ezartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Farmazia-antolamenduari buruzko ekainaren 17ko 11/1994 Legearen 34. artikuluan eta Osasun Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 6ko 268/2001 Dekretuaren 14. artikuluan.

Bigarrena.– 11/1994 Legearen 34. artikuluan aurreikusitakoa bete izanak Farmazia zuzendariaren ebazpena ekarri zuen eta, Echaberry jaunak egindako eskabidea ezetsi ondoren, Ana Isabel Redondo Redondo andrea geratu zen puntuaziorik handienarekin eta, ondorioz, bidezkoa zen dei egindako farmazia-bulegoa sortzeko aurretiko baimena lortzeko beharrezko agiriak aurkezteko deia egitea.

Horregatik, farmaziak sortzeko ezarritako prozedura dela-eta, 338/1995 Dekretuan garatutako xedapenak bete dira, eta dekretu horretako 5. artikuluaren arabera, lehiakideak aurkeztu duen dokumentazio guztia eta erabilitako epeak egokiak direla egiaztatu da; beraz, bidezkoa da farmazia-bulegoa sortzeko baimena Ana Isabel Redondo Redondo andreari ematea.

creación, traslado, cierre y funcionamiento de las oficinas de farmacia, a efectos de obtener a su nombre la correspondiente autorización previa a la creación de la oficina de farmacia convocada.

Sexto.– Con fecha 31 de octubre de 2008, Dña. Ana Isabel Redondo Redondo presenta solicitud de autorización de creación de oficina de farmacia en el municipio de Vitoria-Gasteiz, acompañada de la documentación exigida al amparo del Decreto 338/1995.

De la documentación aportada se desprende que el emplazamiento del local donde se pretende la instalación de la nueva oficina de farmacia es en el n.º 33 de la calle Pamplona, del municipio de Vitoria-Gasteiz, zona farmacéutica Vitoria-Gasteiz.

Séptimo.– Con fecha 6 de noviembre de 2008, el Director de Farmacia pone en conocimiento de lo que se expone en el punto anterior a los titulares de intereses legítimos que puedan verse afectados por la resolución que se dicte, a fin de que, si lo estiman conveniente, puedan personarse en el procedimiento que se tramita y formular las alegaciones que estimen convenientes.

En el plazo concedido al efecto, ninguno de dichos titulares se ha personado o presentado alegación alguna.

Octavo.– Con fecha 11 de diciembre de 2008, la Jefa del Servicio de Ordenación Farmacéutica informa favorablemente la documentación aportada por Dña. Ana Isabel Redondo Redondo a efectos de obtener la autorización pretendida

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– De acuerdo con lo señalado en el artículo 34 de la Ley 11/1994, de 17 de junio, de Ordenación Farmacéutica de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en relación con el 14) del Decreto 268/2001, de 6 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Sanidad, compete la resolución del presente procedimiento al Director de Farmacia.

Segundo.– La aplicación de lo previsto en el artículo 34 de la Ley 11/1994 motivó la resolución del Director de Farmacia que, al denegar la solicitud formulada por el Sr. Etchaberry, convertía a Dña. Ana Isabel Redondo Redondo en la concursante de mayor puntuación y por tanto la llamada a aportar la documentación necesaria para obtener la autorización previa a la creación de la oficina de farmacia convocada.

Pues bien, cumplidas las previsiones contenidas en el Decreto 338/1995 en relación con el procedimiento establecido para la creación de oficinas de farmacia y comprobada la adecuación de la documentación aportada y el plazo de su entrega a lo dispuesto en el artículo 5 del citado Decreto, procede conceder la autorización de creación de la oficina de farmacia a favor de Dña. Ana Isabel Redondo Redondo.

Dena dela, 338/1995 Dekretuaren 6.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, honen bidez ematen den baimena, jarduteko beharrezko den baimena lortzearen baldintzapean geratzen da.

Horiek horrela, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Baimena ematen zaio Ana Isabel Redondo Redondori farmazia-bulego bat sortzeko, hain zuzen ere Vitoria-Gasteizko udalerriko Iruñea kaleko 33an kokatuko dena, andreak berak aurkeztutako agirien arabera.

Bigarrena.– Ana Isabel Redondo Redondo andreak, dena den, farmazia horretan jardun ahal izateko dagokion baimena lortu beharko du aurretiaz, honen bidez emandako baimenak indarra izango badu. Baimen hori eskatzeko, lau hilabeteko epea izango du —ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita—, eta 338/1995 Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunei jakinarazi, eta aditzera eman ebazpen honek ez duela administrazio-bidea amaitzen eta, horren aurka, gora jotzeko errekurtsoa edo bidezko jotako beste edozein aurkez diezaioketela zuzendaritza honi edo Osasun sailburuordeari. Hilabeteko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 12a.

Farmaziako zuzendaria,
GONZALO TRINCADO IBÁÑEZ.

Ahora bien, conforme a la previsión establecida en el artículo 6.4 del Decreto 338/1995, la autorización que mediante la presente se otorga debe quedar condicionada a la obtención de la correspondiente autorización de funcionamiento.

Por todo ello,

RESUELVO:

Primero.– Conceder a Dña. Ana Isabel Redondo Redondo autorización de creación de oficina de farmacia a ubicar en la calle Pamplona, 33 del municipio de Vitoria-Gasteiz (Álava), de acuerdo con la documentación por ella presentada.

Segundo.– Esta autorización queda condicionada a la obtención por parte de Dña. Ana Isabel Redondo Redondo de la correspondiente autorización de funcionamiento, que deberá solicitarse en el plazo de cuatro meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la presente resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, todo ello de conformidad con lo previsto en el artículo 7 del Decreto 338/1995.

Tercero.– Notifíquese a los interesados la presente resolución, con indicación de que no agota la vía administrativa y que contra ella podrán interponer recurso de alzada ante esta Dirección o ante el Viceconsejero de Sanidad, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su notificación, así como cualquier otro que estimen oportuno.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de diciembre de 2008.

El Director de Farmacia,
GONZALO TRINCADO IBÁÑEZ.